

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Ikasturte berrirako lau etxeko lan xume aukeran

railarekin batera abiatu da urte politikoa eta, egiari zor, ez dakar historiara pasatzeko itxura handirik, duela hamar urteko hark bezala. Batetik, pandemiak arreta, erabaki eta liskar guztiak xurgatuko ditu oraindik, beste puska baterako. Bestetik, ez dugu hauteskunderik agerian, ez elkarriketa mahairik, ez akordio handien esperantzarik, ez mobilizazio agenda potenterik... Basamortuko ibilbide honetan, norbanako gisa gure bizi aurreikuspenak, itxaropenak, ametsak apaldu ditugula bistan da; zeresanik ez herri gisa.

Beharbada horregatik, mantra berri bat ari da hedatzen, telebistako iragarkietatik tabernako solasaldietara: norbera aldatzea omen da mundua aldatzen hasteko modua. Ez naiz ni ekimen pertsonalen zale eta autolaguntza- ren fededun, ez eta "Tximeleta efektua"ren jarraitzaile ere. Baina tira, totem berri hori ontzat joaz, gauzak dauden maila apalean ez zaigu introspektzio garai honetarako etxeko lanik faltako, tunelaren amaieran bide argiagorik agertu bitartean. Proposamen xume batzuk baino ez dira hauek, udako eskarmen-tuetatik udazkeneko eginbe- harretara bideratuta.

Kontakizunaren bataila

etxean hasten da: Terrorismoaren Biktimen Memoria- lak zer idatzi ekarri digu kazetarioi abuztuko lehortean, eta bolo-bolo ibili dira Meliton, Perret eta abarri buruz- ko eztabaidak sareetan. Logikoa da, baina memoriaren adreilu hori ez dakit euskal etxea eraikitzeke erabiltzen ari garen, edo soilik errelato bakarra ezarri nahi digute- nen aurkako borrokarako. Gehienok zapalduko ez dugu 'Melitonium' baino gertuago begiratuta, orain eskole- tan ikasturtea hastear dela, zer ari gatzazkie ikasleei helarazten? Eta zer irakasten ari gara etxean? Tik-tok eta Twitchetik baitzaie helduko...

«**Vascos por el mundo**» bai, baina...: Azken hamarka- dan askotan nabarmendu digutenez, ETak borroka ar- matua utzita Euskal Herrira Espainiatik bereziki dato- zen bisitarien kopurua nabarmen hazi egin da. Ez da

hainbeste aipatu, ordea, kontrako norabidean trafikoa ere dextente igo dela, agian polikiago baina hamar urte hauen bueltan ikusgarri. Madrilen euskaraz –eta katala- nez– asko entzun dutela kontatu didate abuztuan ber- tan egon direnek. Berez ez zait ez ona ez txarra irudi- tzen, baina beraiek hemen eta guk han uzten dugun aztarna ez dela parekoa sumatzen dut. Ez dugu Madril kolonizatzeko gaitasunik –ez eta inolako asmorik ere– baina ez gaitzen behintzat han urtu.

Konfrontazioaren norabidea berreskuratu: Abuztu- ko egun bakar batean hiru su bizi piztuta ziren herrian: elkarri mokoka zebiltzan ZIUKo burua eta bertsolaria birusaren kontura; sindikatu nagusiaren aurka 'escra- che' an talde bat, txertaketa zela eta ez zela; eta bigarren indar politikoaren kontra ironiaz zinema jaialdi nagu-

Udako eskarmen-tuetatik udazkeneko eginbeharretara, pandemia eta blokeo politikoaren basamortu honetan ez da etxean hausnartzeko motiborik falta

siaren zuzendaria, sari baten aitzakiaz. Pentsaera baka- rra ez dut nik defendatuko, gauzak ezberdin ikustea zi- legi da, baina estatuen kontrako konfrontaziorako indar apurrik geldituko ote zaigu?

Egiteko euskal moduak berreskuratu: Ikurrinetik hasita, euskal ikurak paisaiatik desagertzen ari direla- ko kezkatuta dago abertzale asko. Erraza litzateke hone- kin etxeko lanen bat asmatzea, baina ez dela soilik ikur kontua esango nuke. Beste herrien gainetik izan nahi gabe, 'euskal balio' batzuk izan dira historikoki ezauga- rritu gaituztenak: auzolana, lanerako grina, lurrearikiko maitasuna, eskuzabaltasuna, zorrotzasuna, zintzotasu- na... Irakasle batek azaldu didanez, oraingo hezkuntza- ren gakoa ez dira edukiak, konpetentziak baizik, gauzak egiteko moduak alegia. •